

## **Biolontxelorako suiteak (Suites para violonchelo)**

**Taberna Nagusia** · maiatzak **29 de mayo 19:30** (ostirala · viernes)

**Karmele Castillo Maeso** (biolontxelo · violoncello)



- **Biolontxelorako suitea, 1. zk., Sol Maiorrea, BWV 1007 · J. S. BACH (1685)**
- **Biolontxelorako suitea · G. Casadó (1897)**
- **Biolontxelorako 3. suitea Do Maiorrea, BWV 1009 · J. S. BACH (1685)**

---

### **Egitarauari buruzko oharrak:**

Biolontxelo-bakarlariak toki garrantzitsua du musikaren historian. Akonpainamendurik, orkestrarik, pianorik gabe, *babesik* gabe dago musika-tresna: interpretearen esku geratzen da esaldi, isilune eta ñabardura bakoitza. Bada, gaurko egitarauak tradizio horretan zeharreko ibilbidea proposatzen digu, eta Barrokoaren eta XX. mendearen arteko zubia eraikitzen du.

Johann Sebastian Bachek XVIII. mende hasieran biolontxelorako idatzitako suiteak dira erreperorioaren zutabe nagusietako bat. Lan horietan, dantzen segida bat sakontasun miresgarria duen soinu-arkitektura bihurtzen du Bachek.

Eta, bi mende baino gehiago igarota, Gaspar Casadó biolontxelista katalanak eredu historiko hori berreskuratu eta berrinterpretatu du, sentsibilitate modernotik. Bere

suiteak Bachen tradizioarekin dihardu, argi eta garbi, baina, aldi berean, harmonia garaikideagoak eta Espainiako folklorean inspiratutako erritmoak txertatzen ditu. Horren emaitza da iraganari begirunez begiratu, baina ahots propioarekin hitz egiten duen eta nortasunez beteta dagoen musika.

Horrela, kontzertu hau tradizioaren eta modernitatearen arteko *elkarrizketa* bihurtzen da, dantza zaharraren eta adierazpen garaikidearen artekoa, biolontxeloak tresna bakarlari gisa dituen aukera mugagabeak ospatzen dituena.

**Johann Sebastian Bach (1685-1750), biolontxelorako 1. suitea, BWV 1007, sol maiorrean; eta biolontxelorako 3. suitea, BWV 1009, do maiorrean**

**Johann Sebastian Bach**en biolontxelorako suiteak musika-tresna horretarako erreperitorioaren gailurretako bat dira, gaur egun. Alabaina, apur bat ahaztuta egon ziren urte luzez, XX. mendean Pau Casalsek berraurkitu, eta biolontxelista ororentzako funtsezko lan bihurtu ziren arte.

Bachen garaian, biolontxelo musika-tresna bakarlari gisa finkatzen hasi zen. Egitarauko suiteak ez dira kontzertuak, ez lagundutako sonatak: biolontxelo erabat bakarrik dago. Eta, hala eta guztiz ere, Bachek lortzen du aldi berean zenbait ahots ari direlako sententzioa sortzea, akordeak, soka bikoitzak eta erregistroa maisukiro erabilia.

1. suitea da, seguruenik, ezagunena; batez ere, bere prelude ospetsuagatik, zeina musika klasikoaren pasarte esanguratsuenetakoa baita eta izaera intimo eta gardena baitu. Idazketa soilekoa dirudien arren, xalotasun horrek zehaztasun handiko arkitektura musikala ezkutatzen du.

3. suitea, aldiz, distiratsuagoa eta irekiagoa da, bere tonalitateagatik eta instrumentuaren afinazio estandarreko soka guztiak baliatzen dituelako.

**Biolontxelorako suitea, Gaspar Cassadó (1897-1966)**

XX. mendeko biolontxelista handietako bat izan zen **Gaspar Cassadó** katalana. Pau Casalsen ikasle zuzena, teknika aparta ezezik Bachenganako miresmen sakona jaso zuen maisuarengandik, eta, hala, Cassadó Bachen suiteen interprete paregabea izan zen.

Ildo horretan, biolontxelorako Cassadóren suitea (1926an konposatua) lan barroko haiei egindako omenaldi modernotzat har daiteke. Suitea dantza edo mugimendu desberdinen segida delako ideari eusten dio katalanak, baina harmonia ausartagoak baliatzen ditu, eta XX. mendeko inspirazio herrikoia eta efektu teknikoak dituzten aldaera melodikoak ere bai.

Horrela, bada, Cassadóok Bachen suiteen egitura mantendu, baina nortasun nazionalaz eta hizkuntza garaikideagoaz blaitzen du. Suitea adierazpen-askatasun handiko *Preludio-fantasiarekin* hasten da, non pasarte introspektiboak eta birtuosoagoak diren beste batzuekin tartekatzen baitira, inprobisaziora hurbiltzeko saiakera gisa-edo. Bigarren mugimendua *Sardana* da, Kataluniako dantza tradizionalen inspiratua. Kutsu herrikoi eta elegantea dakar zati horrek, ospakizuna eta komunitatea iradokitzen duten erritmo bereziekin. Eta, amaitzeko, *Intermezzo e Danza Finalea* dator, lirikotasuna eta dirdira teknikoa uztartzen dituen eta energia espainiarrez betetako amaiera kartsu eta erritmikoa osatzen duena.

---

---

### **Karmele Castillo Maeso**

2023an eta 2024an Bizkaiko Foru Aldundiarengandik musika modalitatean bekaduna eta Fonds Nguyen Thien Dao eta Fonds Tarrazi fundazioengandik ere bekaduna, Karmele Euskadiko Orkestrako kidea da 25/26 denboraldiaz geroztik Biolontxelo Tutti gisa.

2023an kalifikazio gorenekin graduatu zen Musikenen (Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia), non Damian Martinezekin ikasi zuen, eta urte berean Parisko *Conservatoire National Supérieur de Musique et Danse* ospetsuan masterra ikasteko lekua lortu zuen Raphael Pidoux-ren klasean. 2025ean bukatu zituen bere ikasketak "Mention Très Bien à l'unanimité" lortuz.

Hainbat lehiaketetan saritua izan da, hala nola 2. saria "Ciutat de Xátiva" Musikari Gazteentzako Lehiaketaren XIX. edizioan (2020), 2. saria exaequo Uceda Sariaren XIV. edizioan (2019) eta 2. saria Euskadiko Musikari Gazteen XIII. lehiaketan (2018-2019), besteak beste.

Ganbera musikarekiko grina du, eta aipagarria da Frantzia Philippe Bernold txirulajotzaile ospetsuarekin batera egindako debuta. 2023an, 'Duo Bihots' taldea sortu zuen Nadiia Standa piano-jotzaile ukrainarrarekin batera.

Orkestra arloan, Euskadiko Orkestrarekin, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin eta Bartzelonako Orkestra Sinfonikoarekin kolaboratu du. 25/26 denboralditik aurrera, Biolontxelo Tutti-ko lanpostua du Euskadiko Orkestran.